



LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1. Egitasmoaren izenburua:

ANANDA OSASUN HOLISTIKOA

2. Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2022

3. Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☒ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☐ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☐ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarritzko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. Proiektuaren helburua:

Mendialdea eskualdean bizi diren pertsonen (bereziki emakumeen) laguntza eta entrenamendu zerbitzua eskaini nahi die proiektuak, beste emakume batzuekin batera jardun eta elkarren bizi-eritmoetatik gertuago egoteko.

5. Inbertsio totala: 3.419,20 euro

6. Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 6.090,00 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7. Onuraduna:

ANANDA ABAIGAR VILLA

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

8. Lankide edo entitate partehartzaileak:

Ekimen pribatuko proiektua da, pertsona fisiko, enpresa eta administrazio publikoentzat.

9. Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Kanpezu, Araba

10. Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Egitasmoaren sustatzailea Mendialdean bizi den emakume bat da; gizarte-lanean eta genero-indarkeriaren nahiz gizarte-bazterkeriaren biktimekiko esku-hartzean trebatuta dago, genero-dekonstrukzioan dauden emakume-taldeak dinamizatzen ditu, LPF (Low Pressure Fitness) entrenatzailea da, naturopatia eta aromaterapia lantzen ditu eta *doula* (haurdunaren laguntzailea) ere bada.

Sustatzailearen lan-ibilbidea, gehienbat, hiriguneetan garatutako proiektuetan ardaztu da, harik eta, 2022ko apirilean, proiektua Mendialdean, hots, bere bizilekuan, abian jartzea erabaki zuen arte.

Hala, “ANANDA OSASUN HOLISTIKOA” enpresa sortu zuen, eta jarduera hauek eskaintzen hasi zen: jarrera- eta arnasketa-entrenamendua, haurrentzako yoga, mindfulness-a, naturopatia, *doula* eta emakumentzako laguntza hainbat bizitza-prozesutan.

Horretarako, akordioak eta lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu Mendialdeko zenbait udal, eskualdeko administrazio eta ikastetxerekin.

11. Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Proiektua 2022an abiatu zen eta garatu ahala eskualdeko gizarte-garapenean lagundu du eta, batez ere, emakumeen eta haurren harreman sozial eta pertsonalak bultzatzen eta hobetzen.

Horretarako, 3 jarduera mota landu dira:

- LPF eskolak: gorputza eta adimena entrenatzea, batez ere, jarrerazko ohiturak eta arnasketa berrezteko (24 lagunek parte hartzen dute Mendialdeko hainbat udalerritan banatutako taldeetan).
- Haurrentzako yoga (21 parte-hartzaile, Maeztuko eta Kanpezuko ikastoletan).
- Udalerri bateko emakume-taldeei laguntzea, ahalduzko, deseraikitze eta hazteko guneak sortuta, norberarekiko eta taldearekiko lotura indartuta (50 emakume parte-hartzaile)

Eskualdean ez dago halako zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzu pribaturik.